

“Errefuxiatuen” Ama
Arantzazuko Santutegia, 2015eko irailaren 9a

Senide maiteok:

Gaur alaitasunez eta pozik ospatzen dugu gure Elizbarrutiko zaindari den Arantzazuko Amaren jaieguna. Datorren igandean, irailaren 13an, 2015-2016ko urte pastoralari hasiera emango diogu Donostiako katedralean, eta, aldi berean, apaiz berri baten ordenazioa ospatuko. “Familia” gure Amaren inguruan bilduta dagoen gaurko egun honetan, hau dela uste dut lekurik eta egunik egokiena, guztiok elkaturik, gure otoitzean Mikel Aranguren gazte azpeitiarra gogoan izan dezagun; gure herriaren gaurko egoera honetan Jesu Kristoren testigantza egingo duen apaiz leiala izan dadila eskatuko dugu.

Zalantzarik gabe, apaizetarako bokazioen ardura da eliztar izatearen ezaugarririk objektiboenetakoa. Gure gizarte honek bizi duen egoera moral eta espiritual larriak Kristoren Bihotzaren araberrako eliz artzainen beharra adierazten digu oihuka.

Garbiak eta begi-bistakoak dira aipatu dudan egoera moral eta espiritualaren larritasuna adierazten duten ezaugarriak: sobera ditugu zatiketak, baina elkarguneak falta zaizkigu; sobera ditugu azaleko iritziak, baina sakontasunez elkar ezagutzea falta zaigu; sobera ditugu zalantzak, baina fedea falta zaigu; sobera ditugu sufrimenak, baina itxaropena falta zaigu... Hitz batean esateko, sobera ditugu “gezurrezko mesias” eta “gezurrezko promesak”, baina Jesu Kristo falta zaigu... Ebanjelioak dioen bezala, gu ere bidea galduta eta nahastuta aurkitzen gara, artzainik gabeko ardiak bezala... Zalantzarik gabe, Kristoren Bihotzaren araberrako artzainen beharra dugu!

Orain beste egoera bat aipatu nahi dut: Iraken eta Sirian bizi duten larritasuna, eta beharturik gure ateetara iristen ari den migrazioaren egoera guztiz larria. Guretzat, kristauontzat, bereziki ezaguna zaigu beharturik egindako migrazio-gertaera. Burura datorkit –nola ez!– Familia Santuak Herodesen atzaparretatik Egiptora ihes egin behar izan zueneko, Jainko Haurraren bizia desegin nahi baitzuen, nahiz eta hura munduari bizia ematera etorri izan. Josek eta Mariak zaindu zuten, lehenengoz, arriskuan zegoen bizi hura, eta zaindu ahal izateko, ihes egin behar izan zuten aldi baterako –ez dakigu zehatz zenbat denbora izan zen–, beren kulturarako arrotza zen urrutiko leku batera... Nolako izan ote zen haien ibilaldia? Zer-nolako arriskuak izan ote zituzten? Beldurrik pasa behar izan ote zuten? Nola moldatu ote ziren hizkuntzarekin? Inork eman ote zien bidean eta gero Egiptora iristean ostatu? Zenbat denborako mantenua izan ote zuten, aurreratua izan zezaketen diru-pixkarekin? Aurkitu ote zuten lanbiderik? Arrotzak edo kanpotarrak izateagatik, mesfidantzaz eta susmo txarrez hartu ote zituzten? Lagunik egin ote zuten?...

Bai, errepikatu egiten da historia, eta berriro ere ate-joka ari zaigu Ebanjelioa. Hiru urte besterik ez zituen eta hondartzan itota azaldu zen Aylan izeneko haurtxo kurdo siriarraren argazkia Egiptora ihes egin behar izan zuen Jesus Haurraren

irudiaren gainean jarria ikusten dugu. San Joanen Ebanjelioko hitzak datozkigu burura: *“Bereengana etorri zen, eta bereek ez zuten onartu. Onartu zuten guztiei, berriz, Jainkoaren seme-alaba izateko ahalmena eman zien”* (Jn 1, 11). Ebanjelio-pasarte honen arabera, harrera ona egitea funtsezko gauza da eta gai egiten gaitu Jainkoaren seme-alaba izatea lortzeko.

Frantzisko Aita Santuaren deiarekin bat eginez, harrera-ekimena jarri nahi dugu abian Donostiako gure Elizbarrutian. Gaur Santutegi honetan ezagutzea eman nahi dut publikoki, eta datorren igandean aurkeztuko dute parrokia guztietan:

- a) Iraketik eta Siriatic babes politiko eske datozenak onartzeko aukera eta prestasuna duten familia, parrokia eta erlijioso-elkarteei zuzentzen diegu deia.
- b) Errefuxiatuei eginiko harrera urte beterako izango litzateke, CARITAS egingo delarik gero toki berria aurkitzearen eta beraien beharren kargu.
- c) Urte horretan zehar harrera egiten duten familiek CARITASen bide-laguntza izango dute behar dutenerako.
- d) Zerbitzu hau eskaintzeko prest dauden familiek eta elkarreek beren parrokoarengana jo behar dute, eta haiek Donostiako CARITASen zerbitzuekin harremanetan jarriko dira, beharrezko koordinazioa bideratzeko.
- e) Harrera-baliabide hauek errefuxiatuen onarpena koordinatzeko ardura duten erakunde ofizialen eskura jarriko ditu Eliza Katolikoak.

Esandakoari beste zerbaite ere erantsi nahi diogu: nazioartekoa den krisi honetan, gure eginkizun morala ez dela iheslari hauek onartu eta ostatu ematearekin bukatzen; izan ere, migrazio jendetsu honen jatorrian gatazka armatua dago, eta handia da horri irtenbidea aurkitzeko dugun erantzukizuna. Europara datozen Siriako eta Irakeko errefuxiatu hauek eskubide dute beren lurraldean bizitzeko, Estatu Islamiko delakoak bota egin baititu beren etxetik. Estatu Batuek eta Europak Erdialdeko Ekialdean izandako jarduera nahasiek –berezi 2003an Irakeko gerrate hartan izandakoak– sustrairik gabeko estatuen sorrera izan dute ondorio, eta horietan aurkitu du fundamentalismo islamikoak hazteko lurrik onena. Arrisku larrian aurkitzen da kristautasuna Erdialdeko Ekialdean bizirik iraun ahal izateko; eta ez dugu ahaztu behar, ia bi mila urtetan bizi izan diren kristau-elkarreak direla.

Oraintsu, Antiokia, Alexandria eta Jerusalemgo Patriarka greko-melkitak – Erdialdeko Ekialdeko agintaririk handienetakoak, alegia– dei egin zion nazioarteko elkarteari errefuxiatuak onartze hutsarekin konformatu ez zedin, baizik eta gatazka hau sustraitik gelditzen ere inplika zedin. Hitz lasgarri hauek nazioarteko esku-hartze militar humanitarioaren behar morala ekarri digute gogora, hainbat aldiz adierazi izan baitu hori Eliza Katolikoak bere irakaspen sozialean.

Gatazkan bizi diren nazioetako biztanleekiko gure erantzukizunari dagokionez, esan nahi dizuet, gure Elizbarrutiko CARITAS aztertzen ari dela zein bide izan

daitekeen egokiena, Siria eta Irakeko gerratearen kalteak nozitzen ari direnei gure laguntza iritsarazteko. Gauza jakina denez, elkarren arteko solidaritzak ez du bereizkeriarik egiten erlijioari edota jatorri etnikoari begiratuz; hala ere, horrek ez du esan nahi lurralde haietako kristauekiko ardura berezia izan behar ez dugunik; hain zuzen, kristauak dira hango txikizioaren lehentasunezko helburua. Gai honi dagokionez, ekimen zehatz desberdinen berri laster ematea espero dugu.

Senide maiteok: globalizazioak izan duen ondorio baikorrenetako bat, gure Lur honetako herri guztiek duintasun bera dutela konturatzea izan da, egia horren kontzientzia gero eta handiagoa izatea, alegia. Gero eta hobeto ulertzen ari gara “guztion etxea” dela mundua, familia bat bera osatzen dugula Lurreko biztanle guztiok. Aita Santuak ekologia gai harturik idatzitako “Laudato si” azken entziklikari azpigitulu hau eman nahi izan dio: “Denona den etxea zaintzeaz”. Egiaz, denok elkarrekin duguna ez da “etxea” bakarrik; “bizia” ere elkarrekin dugu mundu honetako biztanle guztiok. Jatorri bera dugu denok, eta etorkizun bera. Beraz, bizitzako gure erromesaldian ezin gintezke batzuek besteenganako axolagabe izan, gure bokaziorik jatorrizkoena den “elkartasunaren” kontrako jarrera izango bailitzateke hori.

Zaindari dugun Arantzazuko Ama Birjinaren ardurapean jartzen ditut, Aita Santuak datorren abenduaren 8an hasiera emango dion Errukiaren Jubileu Urtearen fruituak. Burutzear dugu, une honetan, Elizbarrutian, urte honetako eginkizunen egutegia, grazia-une hau benetan bete-betean bizi ahal dezagun geure artean. Oraingoan, ostatu ematearen eta errefuxiatuekin elkartzearen esperientzia izango da, dudarik gabe, Errukiaren Jubileuaren ataririk ederrena.

Maria Santua, “Errukiaren Ama”, “Bakearen Erregina”, “errefuxiatuen Ama”, egizu otoitz gure alde.